


Euskampus Bordeaux Eguna 2021

28.Urr - 29.Urr

Kod. H28-21



Edizioa

2021

Jadueria mota

Workshop

Data

28.Urr - 29.Urr

Kokalekua

TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

Hizkuntzak

Gaztelera, Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Web

<https://euskampus.eus/es/actualidad/noticias/euskampus-bordeaux-eguna-2021-inscripcion-abierta>

ZUZENDARITZA

Igor Campillo, Euskampus Fundazioa, Director

Antolakuntza Batzordea

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Azalpena

Edizio honetan programa berritzaile bat diseinatu da, eta bertaratutakoen parte hartzea aktiboa izango da hainbat saiotan. Besteak beste, ikasleek eta ikertzaile juniorrek 180 segundotan aurkeztuko dituzte proiektuak. Formatu zatitua planteatu da, jardun erdiko bi egun, denbora gehiago izateko harreman sozialetarako. Hori dela eta, normaltasun berriaren baitan, Euskampus-Bordeaux Eguna aurreko edizioetako topaleku eta lagunarteko gune gisa bizi ahal izango da. Era berean, aberastasun multilinguistikoaren eta multikulturalaren aldeko apustuari eutsiko zaio; izan ere, parte hartzaile bakoitzak erosen sentitzen den hizkuntzan jardun ahal izango du, eta hizkuntza hori erabili harremanetarako (hiru hizkuntza ofizialak: euskara, frantsesa edo gaztelania; eta ingelesa, *lingua franca* gisa).

Euskampus Bordeaux Egunean parte hartu nahi izanez gero, mesedez eman zure izen-abizenak buletin honetan.

[IZENA EMATEKO BULETINA](#)

Helburuak

- Bi unibertsitateetako ikasleen, ikertzaileen, irakasleen eta kudeaketa-langileen arteko mugaz gaindiko lankidetzat bultzatzea eta ikusaraztea.
- Komunitateen arteko parte-hartze aktibo transdisziplinarra, eleanitza eta multikulturala sustatzea.
- Euskampus Fundazioaren Patronatuko kide diren erakunde laguntzaileak ikusaraztea
- Unibertsitateen nazioarteko proiektzioan laguntzea: UPV/EHUrena eta Bordeleko Unibertsitatearena.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK

**CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES**

www.uik.eus

Zuzendariak



Igor Campillo

Euskampus Fundazioa, Director

Gaur egun Euskampus Fundazioko zuzendaria da. Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU), Tecnalia Korporazioak eta Donostia International Physics Centerrek (DIPC) sortu zuten fundazioa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako hezkuntzaren nazioartekotzea eta eskualdeko konpromisoa sustatzea du helburu. Irakasle laguntzailea izan da EHUko Zientzia Fakultateko Materia Kondentsatuko Fisika Sailean (1998-2000), Gamesa Energyn nazioarteko proiektuen kudeatzailea (2000), ikertzailea eta proiektuen kudeatzailea LABEIN-Tecnalian (2000-2006), proiektuen eta zabalkundearen kudeatzailea Nanoguneko Ikerketa Kooperatiboko Zentroan (2006-2009), Deustuko Unibertsitate Teknologikoko 2007-Basque Estrategiaren kudeatzailea Euskal Enpresa-Garapenerako Euskal Agentzian.

Irakasleak



Ricardo Díez Muiño

DIPC / Centro Física Materiales
(Donostia)

Ricardo Díez Muiño fisikako doktoradutza burutu zuen UPV/EHUn. Ondoren, bere ibilbide zientifikoa Bordeleko Unibertsitatean (Frantzia) eta LBNLn (Berkeley, USA) garatu zuen. Gaur egun Ikerketa Zientzialaria da CFM Materialen Fisika Zentroan (CSIC-UPV/EHU) eta Donostia International Physics Centerreko (DIPC) Zuzendaria. CFMko Zuzendariorde gisa aritu zen 2005 eta 2011 bitartean eta CFMko Zuzendari 2011tik 2015era. Bere ikerketa arlo nagusiak fisikokimika eta materia kondentsatuaren teoria dira, bereziki gainazaletako dinamika molekularra, kitzikapen elektronikoen teoria eta fotoemisio eta fotoelektroien difrakzioaren teoriar aritzen da. 100 artikulua zientifikoa baino gehiago argitaratu ditu, baita bi liburu ere. Ricardo Díez Muiño nazioarteko 4 kongresuren antolatzaile izan da eta antolakuntza batzordeko beste 4 kongresutan ere parte hartu du. Halaber, Euskampus Bikaintasun Campuseko lehendakariordea eta CIC nanoGUNEko zuzendaritzako kidea da.



Eva Ferreira Garcia

UPV/EHU

Eva Ferreira, gaur egun EHuko Errektorea. Unibasq-eko (euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatzen agentzia) zuzendaria izan da, eta EHuko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean katedraduna da. Matematikan lizentziatua eta Ekonomian doktorea da UPV/EHUn eta Probabilitate eta Estatistikan masterra egin du Courant Institutuan New York Universityn. Ikerketa- eta irakaskuntza-ibilbide sendoa du, eta nazioarteko eragina duten aldizkarietan argitaratutako dozenaka argitalpenekin egiaztatuta dago. Ferreirak ardurak izan ditu unibertsitateko gobernuan, Errektoreorde eta Idazkari Nagusi gisa.

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus



Manuel Tuñón De Lara

University of Bordeaux, President

Medikuntzako doktorea, pneumologian aditua, zientzietan doktorea, unibertsitateko katedraduna eta ospitaleko medikua. Manuel Tuñón de Lara Bordele Segalen Unibertsitateko errektorea izan zen 2008 eta 2014 artean. Bere ardurdian, Bordeleko Bikaintasun Ekimena koordinatu zuen, zeinaren bidez Bordeleko Unibertsitatea sortu baitzen. 2014ko urtarrilaren 17an bertako lehenengo errektore hautatu zuten eta 2018an berrautatu egin zuten. 2020ko abenduaren 17an, Manuel Tuñón de Lara Frantziako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziako presidente aukeratu zuten. Konpromiso eta sinismen handiko gizona izanik, hainbat aintzatespen jaso ditu: Palma Akademikoen Ordenako Ofizial izendatu dute, Merituaren Ordena Nazionaleko Zaldun eta Ohorezko Legioaren Ordenako Zaldun.



Jesus Valero

TECNALIA Research & Innovation, Director General

Doktorego-beka batetik proiektuen kudeaketara bitarteko ikerketa-karrera batekin hasita, 2005ean INASMETeko Bioteknologia Saila zuzentzeko ardura hartu nuen, biomaterialei eta gailu medikoei aplikatutako bioteknologiaren arloko 13 ikertzailez osatutako taldea. 2008an, ESIC Marketing and Business School-ek Marketinean eta Merkataritza Kudeaketan prestakuntza exekutiboa eman ondoren, nire karrera aldatu nuen INASMETeko Osasun Unitateko Merkatu Zuzendari gisa, Unitaterako bezero berriak erakartzeko eta mantentzeko ardurarekin. 2011n, Teknologia Sanitarioen Unitatea zuzentzeko aukera eskaini zidan TECNALIAk, robotikan eta osasunerako IKTetan espezializatutako 10 herrialdetako 45 ikertzailek osatutako taldea. 2012an, TECNALIAko Osasun Dibisioko I+G zuzendari bihurtu nintzen. Gaur egun, 2021az geroztik, Tecnalia Research & Innovation-eko zuzendari nagusia naiz.

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Kokalekua

TABAKALERA Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa

Andre zigarrogileak plaza, 1 20012. Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa